



**Fundazioaren aurkezpena eta Estatuak
praktikara eramandako biolentziaren
biktimen aitortza mailaren datuak**

AURKEZPENA



NOR GARA

Egiari Zor Fundazioa 2012. urteko apirilaren 22an sortu zen. Xede du lan egitea **Estatuaren orotariko biolentziak jasan dituzten biktimen eskubideen alde**.

Euskal Herriko gatazkaren testuinguruan **Estatuen biolentziak hildako pertsonen senideek, zaurituek eta torturak jasandakoek** osatzen dute.

Sektore zabala eta plurala gara, ikuskera anitzeko pertsonak elkartzen dituen.

ZERGATIK SORTU GINEN?

Biktima gisara, urteetan **aitortza ofizialik jaso ez dugulako** sortu ginen: Estatuak monopolizatutako datuen artean ez ginen aintzat hartuak. Hortaz, elkartzen gaituena da guztiok jasan izan dugula modu bateko edo besteko bortxa, eta egundo, pairatutako horren erantzunkizunik inork ez duela bere gain hartu.

ZERTARAKO SORTU GINEN?

Estatuaren biktimen sufrimendua bertute bilakatu, eta **bake prozesuaren aldeko ekarpena egiteko** elkartu ginen, Euskal Herrian, 2011. urteko ETaren su etenaren ostean zabaldutako abagune historiko berriaren testuinguruan.

Gatazkaren arrazoiak eta ondorioak politikoak izanik, akordio politikoa eta demokratikoa ahalbidetuko duen konponbidea lortzeko lan egiteko bokazioa dugu.



ZERK ELKARTZEN GAITU?

Honakoa da gure konpromiso nagusia: **lan egitea gizarte berri bat eraikitzearen alde, oinarri izango dituen elkarbizitza, giza eskubideak eta bakea.**

Euskal jendarteak ez du jakin urteetan bizi izandako giza eskubideen urraketa etengabeak gelditzen. Horiei amaiera emateko elkarbizitza, akordio eta negoziazio bide guztiek huts egin dute. **Berriro inoiz ezin da horrelakorik errepikatu.**

Gainera, bat egiten dugu honako beste printzipioekin:

- Beharrezkoa da gatazka ikuspegi integraletik jorratzea eta hori posible egiteko baliabideak eskaintzea: heriotzak, exekuzio estrajudizialak, behartutako desagertzeak, zauriak, torturak, mehatxuak eta bestelako sufrimendu guztiak osotasunean aitortu, onartu eta erreparatu behar dira.
- Indarkeria ororen erabileraren kontrako jarrera: inoiz ez zen horrelakorik gertatu behar. Ez dugu ahaztu behar oraindik ere bizirik dirautela zenbait indarkeria formak. Horien guztien amaiera exijitzen dugu.
- Egia osoa aintzat hartzen duten gatazkaren kontakizun poliedriko eta anitzak beharrezkoak dira.
- Biktimen instrumentalizazioaren kontrako jarrera: biktimen erabilera interes alderdikoiak eta partikularrak defendatzeko arbuiatzen dugu.
- Biktimen arteko kategorizaziorik ez: pareko giza eskubideen urraketa guztiei erantzun berbera ematea exijitzen dugu.
- Biktimen aitortza eta erreparazio osorako mekanismo berritzaileak beharrezkoak dira: ez dugu sinisten zigorra helburu duen eredu tradizionala justizia egiteko modu bakarra denik. Egia justiziarako mekanismo gisara aldarrikatzen dugu.

GURE LANA



1. Gaur egun arte euskal gatazkaren biktimek jasan duten **kategorizazioa gainditzea** eta giza eskubideen urraketa berdinak jasan dituzten pertsona guztiei **aitortza maila berdina ziurtatzea**. Horretarako, dauden legezko baliabideak biktimen zerbitzura jartzen ditugu (tramitazioetan lagunduaz, aholkularitza emanaz...), edota aitortza posible egin dezaketen mekanismo berritzaileak martxan jartzeko lan egiten dugu.
2. **Ezkutuan dauden egiak itzaletik argira ateratzea**. Gatazkaren baitan bizi izandako sufrimendu askok eta askok ezkutuan diraute oraindik, ezagutzen ez ditugulako edo nahita estali izan direlako. Horiek argitara ateratzeko, ezagutu eta ezagutzera emateko, egiten dugu lan, bermatzeko etorkizunean bizi izandako sufrimendua berriro ez dela errepikatuko. Horretarako, kasu zehatzen inguruko hitzaldi sortak antolatzen ditugu edo ikerketa lanak burutzen ditugu.



3. **Bizikidetza eraikitzeko justizia eredu berria** beharrezkoa dela aldarrikatzea: gatazkaren ondorio guztiak konponduta eta gaindituta dauden eszenatoki bat erdiesteko, sufrimendu gehiago ez eragitea ezinbestekoa da. Hortaz, zigorra baino, egia helburu duen justizia eredu alternatibo bat eraikitzea beharrezkoa dela uste dugu, gatazka gehiago ez luzatzeko, honen ondorioak ez betikotzeko eta konponbidea ez oztopatzeko. Hori euskal jendarteko sektore sozial eta instituzional ahalik eta zabalenen konpromisoa oinarri hartuta izango da soilik posible. Hausnarketa hori gizarteratzen saiatzen gara gure eguneroko jardunean.
4. **Gure biktimarioen inpunitatearen salaketa publikoa:** lan egiten dugu ezagutzeko, ezagutzera emateko eta publikoki salatzeke zein diren kolpatu gintuzten krimenen atzean dauden arduradun zuzenak eta zeharkakoak, gaur egun oraindik askok eta askok zigorgabe dira utelako.


ESTATUAREN BIKTIMAK ZENBAKITAN

HERIOTZAK¹

364


da Estatu Espainolak eta Frantsesak praktikara eramandako biolentziak eragin dituen biktima kopurua:

- Estatuko agenteek eragindako heriotzak: **219**
- Guda zikinak eragindako heriotzak²: **78**
- Salbuespenezko neurri politikoen aplikazioaren eraginez hildako pertsonak: **63**
- Eraso faxistak eta eskuin muturrekoak: **4**



OFIZIALKI AITORTUAK³: 82 biktima (%22,5)

- Estatuak eragindako eskubide urraketak jasan dituzten 219 pertsonen artetik **35 aitortu dira ofizialki** "bizitzeko eskubidearen kontra segurtasun indarrek eragindako biktima" izendapenarekin⁴. Hau da, kasuen **%16 besterik ez**.
- Guda zikinak eragindako 78 heriotzen artetik **43 pertsona aitortu dira⁵ ofizialki** ATE, BVE, GAL edo GAE taldeen biktima izendapenarekin. Hau da, kasuen **%75,6a besterik ez**.
- Salbuespenezko neurri politikoen aplikazioaren eraginez hildako **bi biktima bakarrik** izan dira ofizialki aitortuak⁶.
- Erasotuen eta eskuin muturrekoen ondorioz hildako 4 pertsonatik **2 soilik** onartu ditu Espainiako Barne Sailak terrorismoaren biktima gisara⁷.



TIPOLOGIAK

ESTATUKO AGENTEEK HILDAKOAK

- **Torturaren ondorioz:** 13 pertsona
- **Exekuzio bidegabeak:** 73 pertsona
- **Kontroletan:** 23 pertsona
- **Mobilizazioetan:** 28 pertsona
- **Fusilatuta:** 2 pertsona
- **Buruaz beste egitera behartuak:** pertsona 1
- **Bestelako inguruabarretan⁸:** 79 pertsona

Datuak polizia taldeen arabera:

- **Guardia Zibila:** 114 pertsona
- **Espainiako Polizia Nazionalea:** 71 pertsona
- **Ertzaintza:** 14 pertsona
- **Militarrak:** 10 pertsona
- **Udaltzaingoa:** 1 pertsona
- **Polizia frantsesa:** 2 pertsona
- **Besteak:** 7 pertsona.

Datuak garaika (1958tik aurrera):

- **1958tik 1975eko azaroaren 20ra arte (17 urte):**
Francoren diktadura: 68 pertsona.
- **1975eko azaroaren 20tik 1978ko abenduaren 6ra arte (3 urte):**
Trantsizioa Demokratikoa: 52 pertsona.
- **1978ko abenduaren 7tik 2019ra arte (41 urte):**
Demokrazia garaia: 99 pertsona.

GUDA ZIKINAK HILDAKOAK

- **Alianza Apostólica Anticomunista (Triple A):** 9
- **Batallón Vasco-Español (BVE):** 32 pertsona
- **Grupos Armados Españoles (GAE):** 2 pertsona
- **Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL):** 27
- **Behartutako desagertzeak:** 4 pertsona
- **Guda zikina (nork bere gain hartu gabe):** 12

FAXISTEN ERASOTAN HILDAKOAK

- **Sastakaiz hilak:** pertsona 1
- **Mobilizazioetan:** 2 pertsona
- **Jipoien eraginez:** pertsona 1

SALBUESPENEZKO NEURRI POLITIKOEN ERAGINEZ HILDAKOAK

- **Salbuespenezko espetxe politikaren eraginez⁹:**
34 pertsona
- **Dispersio politikaren eraginez:** 16 pertsona
- **Deportazioaren eraginez¹⁰:** 9 pertsona
- **Beren buruaz beste egitera behartuak¹¹:**
4 pertsona

Datuak garaika:

- **Dispersio politika martxan jarri aurretik (1989):**
11 heriotza
- **1989tik aurrera, dispersio politika abian, 2019ra arte:** 52 heriotza

Garrantzia handiko beste zenbait datu:

- Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten
21 pertsonak 2019. urtean espetxeratuta diraute¹².

KONTUAN HARTZEKO BESTE HERIOTZA BATZUK

Nazioarteko legediaren arabera heriotza guztiak ez dira giza eskubideen urraketak. Hala ere, Euskal Herriak bizi izan duen eta bizi duen gatazka politikoa gainditzeko bidean, ezinbestekoa da honekin estuki harremanatuta dauden beste **115 heriotza** ere aintzat hartzea. Gatazka behingoz gainditzeko, heriotza horiek gogoan hartu behar dira, sufrimendua eragin zutelako eta memoriaren parte ere badirelako.

Horrez gain, munduko beste herrialde batzuetako **5 pertsonak** ere bizitza galdu dute euskal gatazkarekin harremana duten inguruabarretan, edota elkartasun erakustaldietan.

ZAURITUAK


Oraingo ez dago Estatuak praktikara eramandako biolentziak eragindako zauritu kopurua modu globalean zenbatzen duen ikerketarik. Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera¹³, 1960 eta 2013 urteen artean, **746** dira segurtasun indarrek zauritutako pertsonak, eta **426** talde parapolizialek edo eskuin-muturrekoek zauritutakoak.

Hala ere, **errealitatea hori baino askoz zabalagoa da**. Adibide gisara, 1976. urteko martxoaren 3ko Gasteizko sarraskian bakarrik, 15 minututan, 60 zauritu larri izan ziren¹⁴ (horietatik 44 bala-zauriekin).

OFIZIALKI AITORTUAK

“Ahanzturatik ateratzen” txostenak¹⁵ **66 pertsona** zauritu aitortzen ditu:

- Su-armen bidez zauritutako 55 kasu,
- Gomazko balen ondorioz zauritutako 11 kasu.




Bistan denez, lan honek errealitatearen zati txiki bat soilik jasotzen du.

TORTURATUAK

4.113

dira, gutxienez, tortura kasuak, 3.415 pertsonak jasan dituztenak, EAEko torturaren inguruko ikerlanaren arabera¹⁶. Gainera, txosten horrek dio "zifra horiek kaltetuen datu errealaren azpitik daudela". Beste alde batetik, Euskal Memoria Fundazioak dio bere Euskal Herriko torturaren ikerlanean¹⁷ **5.657 direla egiaztatutako tortura kasuak, 4.643 pertsonak pairatu dituztenak.**

Datuak polizia motaren arabera:




Datuak generoka:

- %84,2 gizonezkoak.
- %15.8 emakumezkoak.

OFIZIALKI AITORTUAK: 31 biktima¹⁸ (%0,9)

Oso gutxi dira aitortza jaso duten torturaren biktimak. Aurkeztutako salaketa guztien artetik gutxi batzuk soilik lortu dute sekula **kondena sententzia** bat; gainontzeko guztiak artxibatuak izan dira.



- Torturaren biktimak:** 31 pertsona (4 emakume eta 27 gizon).
- Kondenatuak:** 49 pertsona (21 Polizia Nazionalea eta 28 Guardia Zibila). Ostean, askok eta askok jaso izan dute indultua.
- Estatu Espainola 12tan izan da kondenatua** praktika hori debekatzen duten hainbat trataturi erreferentzia eginez: lehena, 1998. urtean, Torturaren Aurkako Diktamina oinarri hartuta; eta azkena, 2018. urteko otsailean (Portu eta Sarasola kasua).

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 dekretuaren Balorazio Batzordeak 1960 eta 1978 urteen arteko **72 tortura kasuren ebidentzia aitortzen du**, "Ahanzturatik ateratzen"¹⁹ txostenaren bidez.

AITORTZA OFIZIALERAKO ERAGOZPENAK

Estatuak praktikara eramandako biolentziak jasan dituzten biktimen aitortza maila oso baxua bada ere, sarritan oztopatu izan dira aitortza eta egia helburu zuten ekimenak.

Hona zenbait adibide:

- **Estatu espainolaren ezezkoa kalteordainak parekatzeari** aurrez biktima gisara onartuta zeuden estatu terrorismo kasuei, 29/2011 Legean zehaztu moduan (Estrasburgoko Giza Eskubideen auzitegian dagoen kasua).
- **Nafarroako Foru Komunitatean onartutako 16/2015 Legearen kontrako errekurtsua** aurkeztea eta Legea bertan behera uztea. Honen bidez aitortu eta erreparatu asmo ziren eskuin muturreko taldeek eta funtzionario publikoek egindako motibazio politikoko ekintzek eragindako biktimak.
- **Bere horretan mantentzea 9/1968 Legea, Sekretu Ofizialen legea**, beranduago 28/1978 Legeak partzialki aldatu zuena: bigarren artikuluan dio materia klasifikatuak direla Legeak hala izendatutakoak, "Estatuaren segurtasuna eta defentsa arriskuan jarri dezaketenak, baldin eta eduki, informazio, datu eta objektu horiek autorizaziorik gabeko pertsonak ezagutzen badituzte". Orokorrean "segurtasun nazionala" arriskuan jar dezakeen informazio ororen zabalpena oztopatzea du helburu. Eta, hortaz, biktimen egia jakiteko dugun eskubidea mugatzen du.
- **Ikerketa judizial urriak eta oztopoz beteak:** sarritan desagertu izan dira ikerketa korapilatsuetan froga perizialak, edota epaiak eman dira "bertsio ofizialak" oinarri hartuta, Estatuko funtzionarioek praktikara eramandako biolentzia justifikatuaz eta giza eskubideen kontrako jarrerak legitimatuaz.
- **Kondekorazioak eta indultuak:** funtzionari asko eta asko salbuetsi izan dira giza eskubideak urratzeagatik zegozkien arduretatik, horrela krimen horiek inpunitate osoz estaliz. Tortura kasuetan inplikazioa izan duten ehun agente inguruk kondekorazioak mantentzen dituzte gaur egun, adibidez. Estrategia honek eragin duena izan da Estatuko agenteek eragindako giza eskubideen urraketa larriak ukatu edota justifikatzea, modu okerrean pentsatzeagatik horiek salatuta ETAre biolentzia legitimatzen zela.

¹ Iturria: Euskal Memoria Fundazioa. "Deklaratu gabeko gerra. Estatu terrorismoa Euskal Herrian". 2014.

² "Guda zikina" eta "Estatuko agenteak" tipologiak bereiztu egin dira, nahiz eta frogatuta dagoen ikertu diren guda zikin kasu guztietan Estatuko agenteak inplikaturik zeudela.

³ Iturria: Giza eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzak Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzak. <http://www.euskadi.eus/web01-apvictim/es/o11aConsultaWar/victima?locale=es>

⁴ 1960 eta 1978 urteen artekoak, Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretuaren bidez.

⁵ 29/2011 Legearen bidez (Espainiako Gobernua), 32/1999 Legearen bidez (Espainiako Gobernuaren Araudia) edota 4/2008 Legearen bidez (Eusko Jaurlaritzak). Hala ere, aurretik terrorismoaren biktimak gisara aitortuta bazeuden ere, Estatu Espainiarrak ukatu egin ziren pareko trataera biktimak hauei 2011. urtean, kalteordainak parekatzea ukatuta.

⁶ Iruñeko Udalaren Presidentzia Batzordearen erabakia (2018/11/26), eta Barañaingo Udalaren Osoko Bilkuraren erabakia (2018/11/29).

⁷ 29/2011 Legearen bidez.

⁸ Kategoria honek bere baitan hartzen ditu jatorri aniztetasuneko gertakariak, hala nola: ke-potoen eraginezko asfixia, kulata-kolpea buruan, polizia-autoarekin harrapatzea, infartoa polizia oldarraldiak eragindako inpresioagatik, tiroen osteko itotzea, hubil-hurbiletik jaurtitako tiroak liskarretan, Armadak abandonatutako materiala lehertzea...

⁹ Salbuespenezko espetze politikaren eraginez edo dispartzio politikaren eraginez hildako pertsonen mintzo garenan, erreferentzia egiten diegu espetze barruan aplikatutako salbuespenezko neurri politikoen eraginez gertatu diren heriotzei. Horiek etenik ez dute izan 1936. urteko altxamendu militarren ondoren kartzelak euskal preso politikoz bete ostetik. Beranduago, ehundaka euskal preso politikoko kartzelaratuak izan ziren Estatu Frantseseko hamarnaka kartzelatan, eta baita Europako hainbat herrialdeetakoetan eta Latinoamerikako beste askotan ere. Hala ere, 1978. urtetik aurrera ekin zion Estatu Espainiarrak, lehenik, eta Frantsesak, beranduago, fase eta estrategia ezberdinetan, kartzela politika berriari, kartzelaratuak pertsonaren kontrako presioa, mendekua eta suntsipena helburu zituenak. Esaterako, euskal preso bizi baldintzen galera eragin zuen espetxe osasun arreta gabeziak eta gaitxotasunen prebentzio eta tratamendu egoki faltak. Gainera, 1989. urtetik aurrera, presoak Euskal Herrikan kanpora kokatutako hamarnaka espetxetara urrunduta ostean, mehatxu hori kartzelaratuakoen senide eta lagunengana ere zabaltzen zen, horiek pairatu behar zituzten lekualdatzeak, bidaiak luzeak eta gastu ekonomikoak aintzat hartuta.

¹⁰ Francoren garaian ohiko mekanismoa izan zen denbora baterako deportazioarena, eta sedizioagatik, lege kanpoko asoziazioagatik edo "terrorismoagatik" kondenatutako pertsonak penintsulatik urrunduta lekualdatzen ziren. Diktadorearen heriotzaren ostean, akusazio berdinengatik kartzelaratuak zeuden hainbat pertsona "atzeratuak" izan ziren (denbora epe labur batez mantendu zen inolako legeko babesik gabeko ohiko kaponko figura). Aldiz, Gobernu frantsesa izan zen errepresiorako tresna hori barra-barra baliatu zuena, modu bereziki aktiboan, gainera, 70. eta 80. hamarkadetan zehar, euskal errefuxiatu politikoen kolektiboaren aurka. Hasiera batean, epe laburrez, pertsonak lurralde frantsesaren baitara deportatu baziren ere (Yeu irla, Porquerolles, Valensole, Paris...), 1984. urtetik aurrera, eta Espainia eta Frantziaren arteko hainbat erresoluzio eta akordioaren eraginez (GAL bezalako taldeen Ipar Euskal Herriko jarduna efektu gabe utzi zutenak), deportazio errepresiorako mekanismo kuttun bilakatu zen: aurrerantzean hamarnaka euskal errefuxiatu Afrika eta Hego Amerikako hainbat eta hainbat estatutara deportatu zituzten, egundo oraindik askok bertan dirautelarik. Horietariko askok erasoak jasan zituzte, tortura saioak, mehatxuak, bahiketa saiakerak... Denetarikoz lazakerak, nazioarteko zuzenbidean inolako kabadarik ez dutenak. Horrez gain, pertsona horiei ukatu egin zaie lan arloan, osasun arloan edo arlo juridikoan egoera erregularizatu izateko eskubidea.

¹¹ Askok izan dira gatazkan inplikaturik agenteen ekintzen ondorioak modu zuzenean edo zeharkakoan pairatu behar izan zituzten pertsonak. Horietariko batzuk kontrariotasunaren aldean (erakunde armatuak, Estatuak...) ekintzen ondorio zuzen ezin kontsidera badaitezke ere, erabaki dugu zerrenda honetara gehitzea, Estatuaren presio zehatza eta zuzena pairatu ostean, beren buruaz beste egitea erabaki zuten 4 pertsonak. Gainontzeko kasuekin alderatuta testuingurua ezberdina bada ere, kasu horiek sustatu zituztenek ardurak haien gain hartu beharko lituzkete, eta gaitzespen soziala merezi dute.

¹² Iturria: Jaiki Hadi. "Kartzela eta osasuna 2018" txostena. <http://www.etxerat.eus/index.php/eu/txostenak/jaiki-hadi>

¹³ Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarriko txostena (1960-2013): http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/giza_eskubideen_urraketak.pdf

¹⁴ Martxoak 3 elkarteak: <http://www.martxoak3.org/eu/gertakizunak/>

¹⁵ Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketei eta bestelako sufrimendu bidegabekoei buruz Balorazio Batzordeak idatzitako txostena, Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretuan jasotakoa betez: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9854/TXOSTENA_ahantzuratik_ateratzen.pdf

¹⁶ Iturria: "Euskadin 1960 eta 2014 urteen artean gertatutako tortura ikertzeko proiektua" (2017): https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10776/ONDORIOAK_-_tortura_eta_tratu_txarren_ikerketa_2017-12-18.pdf

¹⁷ Azkenekoz 2016ko abenduaren 31an eguneratua.

¹⁸ Iturria: "Euskadin 1960 eta 2014 urteen artean gertatutako tortura ikertzeko proiektua" (2017): https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10776/ONDORIOAK_-_tortura_eta_tratu_txarren_ikerketa_2017-12-18.pdf

¹⁹ https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9854/TXOSTENA_ahantzuratik_ateratzen.pdf

